LUR eta AMETS

AURREKARIAK ETA HELBURUA

Norbere herria ezagutzea, nondik gatozen eta mendeetan zehar komunitate bezala non, nola eta zergatik antolatu garen jakitea funtsezko ezagutza da, egungo gertakariak ulertu eta etorkizuna eraikitzeko.

Gure herriaren historiaren pasarte esanguratsuak, arrastoa utzi duten pertsonaiak, gertakarien lekuko izan diren geografiak, aro bakoitzean gizarteak izan duen mundu ikuskera… egungo gaztetxoek horien guztien berri izatea funtsezkoa da. Baina orain arte, transmisio hori oso mugatua izan da. Arautuzko irakaskuntzaren barruan kokatu da transmisio hori, ez beti, eta ez derrigorrez. Eta eduki horiek hartu duten forma, guztiz akademikoa izan da.

Horrez gain, historiako pasarte jakin batean edo bestean kokatutako nobela edota ipuinetara mugatzen da gaztetxoei zuzendutako materiala.

Hutsune horri erantzun nahi dio proiektu honek, eta helburua, beraz, 8-12 urte bitarteko gaztetxoei, Euskal Herriko historia kontatuko dien marrazki bizidunen luzemetrai bat egitea da. Adin tarte hori da lehentasunezko hartzailea, baina gaiak adin tarte askoz zabalagora iristeko aukerak eskaintzen ditu.

Helburua marrazki bizidunen luzemetrai bat egitea da, baina luzemetrai horren babesean, eta proiektua osatze aldera, hainbat materiale ekoitzi ditugu dagoeneko: Euskal Herriko historiaren oinarrizko ezagutza liburua, ipuin sorta bat, eta galdera erantzunen mahai-jokoa. Bestalde, luzemetraia bukatu ahala serie bat egingo dugu.

Honako lotura honetan, luzemetraiaren trailerra eta orain arte ekoiztutako produkutuak ikusi ahal izango dituzue:

http://www.luretaamets.eus/

SINOPSIA

Lur eta Amets-en gurasoek asteburu honetan ezkontza dute eta bikiak amona Andereren etxean utzi dituzte asteburu pasa. Baina Andereren eta bere katu Baltaxarren boterei esker ez da asteburu arrunta izango. Bidaia batean murgilduko dira, garai eta sasoi desberdinetan abentura gazigozoak bizituz, gure historian zehar bidaiatuko dute. Beti izango dira beraiek protagonistak. Andere eta Baltaxarren laguntza ordaingabearekin.
Baina tamalez gaiztoak, sasoi eta garai desberdintean, ia beti izango dituzte atzetik.

LANAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Marrazki bizidunak.
- Formatua: Digitala.
- Iraupena: 70 minutu.
- 2D animazioa 3D tartekatuta.
- Fikzioa. (Abentura, akzioa, misterioa bilatuko dira).
- Agertuko diren kokalekuak Euskal Herria osokoak badira ere, proiektuan parte hartuko duen talde teknikoa Gipuzkoarra da.
- Euskara soilean ekoiztuko dugu. Hizkuntzari garrantzi handia emango zaio, kokalekuaren arabera bertako hitz eta esaldiak erabiliaz.
- Euskal Herriko historiaren pasarteak, pertsonaiak, edota aroak kontuan izanik, lurraren sorreratik gaur egunera bitarteko kronologia osoa kontatzea du helburu. Ez da Euskal Herrian oraindik horrelako produkturik ezkoiztu.
- Kontaketa osoa egiteko pertsonaia batzuk hartuko dira ardatz, fikziozko pertsonaiak izango dira (kasuren batean egiazko pertsonaietan izan dezakete oinarria eta inspirazioa). Pertsonaietan dago proiektuaren gakoa eta indarra.

PERTSONAIAK

ANAI ARREBA BIKIAK.
Amets deitzen da mutikoa, Lur, neskatoa. Hamaika urte dute.
Amets ameslaria da, erromantiko samarra, irudimentsua; hankak lur gainean izan beharrean, beti beste mundu batean egotea gustatzen zaion horietakoa. Irakurtzea eta margotzea gustatzen zaio.
Lur, neska izukaitza, ekintzailea, errealista, kirolzalea da.

Biei gustatzen zaie abenturak bizi izatea: Ametsi, bere baitara sartuta, arriskurik gabe, irudimenaren bidez. Lurri berriz, benetako abenturak gustatzen zaizkio. Ausarta da, eta argia arazoak konpontzen.
Biei gustatzen zaie historia, biei gustatzen zaielako gauza berriak deskubritzea. Eskolako historiako ikasgaien inguruan asko hitz egiten dute, iraganeko gertakariak nolakoak izan ote ziren irudikatuz. Halere, eskolako historiako liburuak baino gehiago, amonarengana jotzea gustatzen zaie: amonak dena daki. Amonaren jakintzak lilura handia sortzen die. Gainera, asko gustatzen zaie amonak historia nola kontatzen dizkien, ipuin bat izango balitz bezala.

PERTSONAIAK

AMONA ANDERE

Amets eta Lurrek ez dakite amona lamia dela, eta hortik datorkiola jakintza, beste garai eta mundu batzuk ezagutu dituelako. Izaki mitologikoa da, magikoa. Bere izaera bereziaz inor konturatu ez dadin bere ahate hanka nola edo hala ezkutatzen saiatzen da.
Amonaren dohain bereziei esker, Ametsek eta Lurrek denboran zehar bidaiatzeko aukera izango dute. Magia egiteko, lagun duen Baltaxar katuaz baliatuko da amona.

BALTAXAR

Betidanik egon da amonarekin; Baltaxar ere izaki mitologikoa da. Inoiz zahartzen ez den katua.

ESTREINALDIA

Ekoizpena 2017ko urrian hasi zen eta 2019ko abendura arte iraungo du. Estreinaldia 2020ko otsailaren 7an izango da.